Zarauzko Udala

ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA		PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DE CONTRATO DE SERVICIOS
ZARAUZKO MARIA ETXETXIKI ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA OSOA **2025ik200033**		**USO Y GESTIÓN INTEGRAL DEL CENTRO MARIA ETXETXIKI DE ZARAUTZ** **2025ik200033**
I. XEDEA Agiri honen xedea da Maria Etxetxiki Zentroaren erabilera eta kudeaketa osorako zerbitzu-kontratua arautuko duten baldintza teknikoak ezartzea. Maria Etxetxiki Zentroa Gipuzkoa kalea 48an dago (Zarautz). Ondorengo zerbitzuak sartzen dira Maria Etxetxiki zentroaren osoko kudeaketan: - Adineko pertsonentzako eguneko zerbitzua edo zentroa, autonomia-mugek eragindako beharrei erantzuteko. 50 pertsonentzako lekua dauka; eta Foru Aldundiarekin hitzartuta daude lanegunetako 50 plaza eta asteburu eta jaiegunetako 35 plaza. - Bizileku zerbitzua: adineko pertsonentzako babespeko apartamentuak. 46 plaza. - Bizileku zerbitzua: gizarte larrialdiko egoeretarako apartamentuak. 4 apartamentu. - Desgaitasuna duten pertsonentzako laguntzadun apartamentuak. 2 apartamentu: 4 plaza. Apartamentu horiek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartuta daude. Udalak kontratuaren iraupenean zehar, apartamentu eta plaza hauen kopurua alda dezake, Foru Aldundiarekin adosten dituen hitzarmenekin egokitzeko.		**1. OBJETO DEL CONTRATO** El presente Pliego tiene por objeto fijar las condiciones técnicas que han de regir el contrato de servicios para el uso y la gestión integral del Centro Maria Etxetxiki ubicado en Gipuzkoa kalea 48 de Zarautz. La gestión integral del Centro Maria Etxetxiki incluye la prestación de los siguientes servicios: - Servicio o centro de día para personas mayores para atender necesidades derivadas de limitaciones en la autonomía. Capacidad para 50 plazas, y están concertadas con la DFG 50 plazas en laboral y 35 plazas en fin de semanas y festivos. - Servicios de alojamiento: apartamentos tutelados para personas mayores. 46 plazas. - Servicios de alojamiento: apartamentos para la atención de situaciones de emergencia social. 4 apartamentos. - Apartamentos con apoyos para personas con discapacidad. 2 apartamentos: 4 plazas. Estos apartamentos están concertados con la Diputación Foral de Guipúzcoa. Durante la duración del contrato, el Ayuntamiento podrá modificar el número de estos apartamentos y plazas para adaptarlos a los convenios que acuerde con la Diputación Foral.
II. ZERBITZUEN HELBURUA ETA PRINTZIPIO OROKORRAK Helburu orokorra da zerbitzuen xede diren erabiltzaileen behar indibidualei erantzutea. Araubide-esparru honi erantzuteko jarri dira		**II. OBJETIVO Y PRINCIPIOS GENERALES DE LOS SERVICIOS** El objetivo general es dar una respuesta a las necesidades individuales de las personas usuarias. Las prestaciones de los diferentes servicios vienen a dar respuesta al marco normativo que tiene como

zerbitzu horiek: orokorrean, 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, eta hori garatzen duten arauak; eta bereziki 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. Printzipio orokor hauetan oinarritzen dira bereziki zentroko zerbitzu integralak: normalizazioa, autonomia, parte-hartzea, integrazioa, arreta pertsonalizatuaren garapena, egoerei orokortasunetik heltzea eta profesionalizazioa zerbitzuen garapenean. Berdintasun printzipioei dagokienez, aipatzekoa da zerbitzu honek batetik, kontuan hartzen duela Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretu bidez onartutakoa). Bestetik, 3/2007 Lege Organikoa ere jasotzen du, sexuan, generoan edo identitatean oinarritutako diskriminazioak prebenitzea helburu duena. **III. ZERBITZU MOTAK ETA PLAZA KOPURUA** Zerbitzu hauek eskainiko ditu Maria Etxetxiki zentroak: **1.- ADINEKO PERTSONENTZAKO EGUNEKO ZERBITZUA EDO ZENTROA** **1.1 DEFINIZIOA, XEDEAK ETA JARDUERAK** Zerbitzu honek aldi bateko edo etengabeko arreta indibidualizatua eta integrala eskaintzen die mendekotasuna duten adineko pertsonei egunez. Helburua da pertsona horien autonomia hobetzea edo mantentzea, prebentzioko, gaikuntzako eta asistentziako prestazioen bidez. Zertarako? Autonomia pertsonalean trebatzeko, ahalmenak garatzeko eta komunitate-ingurunean parte hartzeko. Helburu nagusia da adineko pertsonek euren autonomia mantentzea, ohiko ingurunean bizitzen jarraitzea, sozializatzea, dituzten muga		base general la Ley 12/2008, de servicios sociales, y su posterior desarrollo normativo, en especial el Decreto 185/2015 de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del sistema vasco de Servicios sociales. Los principios generales sobre los que se asientan los servicios del centro integral son en especial: la normalización, la autonomía, la participación, la integración, el desarrollo de la atención personalizada, el abordaje desde la globalidad de las situaciones y la profesionalización en el desarrollo de los servicios. En cuanto a los principios de igualdad, cabe señalar que este servicio por un lado, tiene en cuenta el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo. Por otro lado, recoge la Ley Orgánica 3/2007, que tiene por objeto la prevención de las discriminaciones por razón de sexo, género o identidad. **III. TIPOS DE SERVICIO Y NÚMERO DE PLAZAS.** El Centro Maria Etxetxiki prestará los siguientes servicios: **1.- SERVICIO O CENTRO DE DIA PARA PERSONAS MAYORES** **1.1 DEFINICIÓN, OBJETIVOS Y ACTUACIONES** Este servicio ofrece, con carácter temporal o permanente, una atención individualizada e integral, durante el periodo diurno a las personas en situación de dependencia con el objetivo de mejorar o mantener su nivel de autonomía mediante prestaciones preventivas, habilitadoras y asistenciales orientadas a la capacitación y al desarrollo de competencias para la autonomía personal y para la participación en el entorno comunitario. Tiene como objetivo principal contribuir al mantenimiento de la autonomía de las personas mayores, a su permanencia en su entorno de vida habitual, su socialización, y a compensar sus

funtzionalak konpentsatzea eta haien ohiko zaintzaileei laguntzea. Helburu espezifikoak: - Adineko pertsonen eta euren familien beharrei erantzutea, autonomia hobetzeko programa egokien bidez. - Mendekotasun egoeran dagoen adineko pertsonak bere etxean eta bere ohiko ingurunean bizitzen jarraitzea. - Erabiltzaileen familiei behar duten laguntza eta aholkularitza ematea, arretan eta bizi-kalitatean hobekuntzak lortzeko. Zerbitzuan garatuko diren jarduerak pertsona hauentzat izango dira: Erabiltzaileak: - Autonomia pertsonalean eta harremanetarako gaitasunean dituzten ahalmenak garatu eta mantenduko dira, esku-hartze programen bidez eta ingurune egokiak sortuz. Horiek aukera emango diete euren burua garatzeko eta erabakiak hartzen parte hartzeko, behar duten laguntzarekin. - Sostengua eman edo eskainiko da pertsona horrek behar duen zaintzan, arretan, segurtasunean, etab. - Pertsona horien hondatze fisikoa eta psikikoa prebenituko da. Horretarako, ahaleginak egingo dira zentroko eta komunitateko jardueretan parte har dezaten. Familiak: - Familientzako arreta programak garatuko dira, haien parte-hartzea bultzatuko da, eta erabiltzailearekiko harremana sustatuko da. - Sostengu emozionala, instrumentala eta informaziokoa jarriko da familien esku, erabiltzailearekin ahalik eta modurik egokienean erlazionatu ahal izateko. Komunitatea: - Zentroa, bertako profesionalak eta zerbitzuak erreferentzia-ardatz izango dira komunitatearen ingurunerako,		limitaciones funcionales y dar apoyo a sus cuidadores y cuidadoras habituales. Objetivos específicos: - Atender las necesidades de las personas y sus familias mediante programas adecuados para mejorar su autonomía. - Posibilitar la permanencia de la persona mayor en situación de dependencia en su domicilio y en su entorno habitual. - Ofrecer a las familias de las personas usuarias el apoyo y asesoramiento necesario para lograr una mejora en la atención y en su calidad de vida. Las actuaciones a desarrollar en el servicio estarán dirigidas a: Respecto a las personas usuarias: - Se desarrollarán y mantendrán sus potencialidades de autonomía personal y capacidad de relación, por medio de programas de intervención y creación de entornos, que les proporcionen oportunidades de desarrollo y participación en la toma de decisiones, con el apoyo necesario para su ejecución. - Se dará u ofrecerá soporte en todos aquellos aspectos de cuidado, atención, seguridad, etc. que precise la persona atendida. - Se prevendrá el posible deterioro físico y psíquico de las personas atendidas, propiciando su participación en las actividades del centro y de la comunidad. Respecto a las familias: - Se desarrollarán programas de atención a las familias, facilitando su participación y fomentando la relación con la persona atendida. - Se pondrá a su disposición el apoyo emocional, instrumental, y de información que les permita relacionarse, de la forma más adecuada, con la persona atendida. Respecto a la comunidad: - El centro, sus profesionales y servicios serán un eje de referencia para el entorno comunitario en lo que se refiere a la atención a las personas mayores, para lo que deberá

pertsona nagusien zaintzari dagokionez; hori lortzeko komunitatearentzat irekita egongo diren jarduerak sustatuko ditu.	fomentar actividades abiertas a la comunidad.
1.2 ZERBITZUAREN HARTZAILEAK:	**1.2 POBLACIÓN DESTINATARIA DEL SERVICIO**
65 urte beteta izan eta Gizarte Politiketako Departamentuak, indarrean dagoen balorazio eskalan oinarrituta, mendeko egoeran dagoen pertsona modura kalifikatutako pertsonentzat da nagusiki eguneko zentroa. Edo 60 urte beteta dituztenentzat, desgaitasuna duten pertsonen kasuan.	El centro de día estará principalmente destinado a personas mayores de 65 años calificadas por el Departamento de Políticas Sociales como persona en situación de dependencia en base a la escala de valoración vigente o bien 60 años en el caso de las personas con discapacidad.
Xedapen hauetan definitzen dira erabiltzaileek bete beharko dituzten baldintza orokor eta espezifikoak: 7/2015 foru dekretua (martxoaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak egoitza zerbitzuetan eta eguneko zentroetan sartzeko araubidea arautzen duena; GAO 2015/03/30ekoa) edo hura ordezkatuko duten araudiak.	Los requisitos generales y específicos que deberán reunir las personas usuarias serán los definidos en el Decreto Foral 7/2015, de 24 de marzo, por el que se regula el régimen de acceso a los servicios residenciales y de centro de día para personas en situación de dependencia en el Territorio Histórico de Guipúzcoa (BOG 30/03/2015), o normativa que le sustituya.
1.3 PLAZA KOPURUA, ORDUTEGIA ETA MODALITATEAK:	**1.3 NÚMERO DE PLAZAS, HORARIO Y MODALIDADES:**
Maria Etxetxiki eraikinean dagoen eguneko zentroak 50 pertsonentzako lekua dauka (baimendutakoak); guztiak Foru Aldundiarekin hitzartuta daude. Lanegunetako 50 plazaz gain 35 plaza ditu hitzartuta asteburu eta jaiegunetarako (Sendian programa, eta modalitate jarraia). Hau izango da oro har zerbitzuaren iraupena: zentroan bertan gutxienez 6 orduko egonaldia egingo da, eta batez ere irekitze-orduaren (8:30 eta 10:00) eta itxiera-orduaren (18:00 eta 20:00) artean eskainiko da zerbitzua.	El Centro de Día ubicado en el edificio Maria Etxetxiki tiene capacidad para 50 plazas (autorizadas), y todas están convenidas con la Diputación. Además de las 50 plazas concertadas en días laborables, tiene concertadas 35 plazas para fines de semana y festivos (programa Sendian y modalidad continua). El número de horas de servicio, con carácter general, será de una duración mínima de estancia en el centro propiamente dicho de 6 horas, prestándose preferentemente entre las 8:30 y las 10:00 de apertura y las 18:00-20:00 de cierre.
Modalitateak: - Ohiko lan zerbitzua: astelehenetik ostiralera. - Modalitate jarraitua: astelehenetik igandera. - Familiei atsedenaldia emateko zerbitzua (Sendian): larunbat, igande eta jaiegunetan.	Modalidades: - El servicio normal laboral, considerado de lunes a viernes. - Modalidad continua, de lunes a domingo. - El servicio de respiro para los familiares (Sendian), en sábados, domingos y festivos.
2.- ADINEKO PERTSONENTZAKO BIZILEKU ZERBITZUA: Babespeko apartamentuak	**2.- SERVICIOS DE ALOJAMIENTO PARA PERSONAS MAYORES: Apartamentos tutelados**

2.1 APARTAMENTUEN DEFINIZIOA ETA HELBURUAK

Iraupen luzeko zerbitzua edo zerbitzu iraunkorra —edo salbuespenez, aldi batekoa— adineko pertsona hauentzat: mendekotasun egoera arina dutenak (I maila), mendekotasun arriskuan daudenak eta salbuespenez autonomoak.

Intentsitate baxuko zerbitzu bat da, eta langileen laguntza daukate funtzio hauetarako: zaintza, bitartekaritza, laguntza soziala eta gainbegiraketa, eta behar izanez gero, laguntza pertsonala eta etxekoa.

Diseinu funtzionala dute: apartamentuak eta aukerako zerbitzu komunak.

Babespeko apartamentuen helburu espezifikoak:

a) Adineko pertsonak bere inguru komunitarioan jarraitzea.
b) Adineko pertsonak bere autonomia pertsonala hobetzea, mantentzea eta/edo autonomiaz moldatzeko behar dituen trebezia eta gaitasunak hondatu ez daitezen prebenitzea.
c) Adineko pertsonari bakardade, isolamendu sozial edo utzikeria pertsonaleko egoerak arintzea, bizikidetzako esparru komunitario baten bidez.
d) Adineko pertsonari segurtasun sentimendua sortzea.
e) Adineko pertsonaren harreman sozialak eta bizikidetzakoak mantentzea.
f) Adineko pertsonari lotura familiarrak eta sozialak gertu izaten eta mantentzen laguntzea.
g) Adineko pertsonek babespeko apartamentu multzoaren antolaketan eta bizi-estiloan parte har dezaten bultzatzea.
h) Adineko pertsonari babes soziala ematea arlo hauetan: bizilekua, higienea, elikadura, bizikidetza eta asistentzia oro har.
i) Helburu espezifiko hauen betetzean genero ikuspespegia kontuan izango da.

2.2 ZERBITZUAREN HARTZAILEAK

2.1 DEFINICIÓN Y OBJETIVOS DE LOS APARTAMENTOS

Servicio de larga estancia o permanente —o excepcionalmente temporal— destinadas a personas mayores en situación de dependencia leve (Grado I), en riesgo de dependencia o, excepcionalmente, autónomas.

Es un servicio de baja intensidad que cuenta con apoyo de personal para ejercer las funciones de tutelaje, intermediación, acompañamiento social y supervisión, así como, en su caso, atención personal y doméstica.

Cuentan con un diseño funcional de apartamento y servicios comunes de uso facultativo.

Objetivos específicos de los apartamentos tutelados:

a) Facilitar la permanencia de las personas mayores en el entorno comunitario.
b) Mejorar su grado de autonomía personal, mantenerlo y/o prevenir el deterioro de las habilidades y capacidades que permiten su desenvolvimiento autónomo.
c) Paliar estados de soledad, aislamiento social o abandono personal, mediante un marco comunitario de convivencia.
d) Favorecer su sentimiento de seguridad.
e) Favorecer el mantenimiento de las relaciones sociales y de convivencia.
f) Favorecer la proximidad y mantenimiento de los lazos familiares y sociales propios.
g) Fomentar la participación de la persona mayor en la organización y estilo de vida del conjunto de los apartamentos tutelados.
h) Proporcionar al/ la residente alojada la protección social básica en cuanto a condiciones de alojamiento, higiene, alimentación, convivencia y asistencia en general.
i) Se tendrá en cuenta la perspectiva de género en el cumplimiento de estos objetivos específicos.

2.2 POBLACIÓN A LA QUE SE DIRIGE

El procedimiento de acceso, requisitos específicos y valoración a estos alojamientos se regirán por la

ADINEKO PERTSONAK ZARAUZKO UDALEKO BABESPEKO APARTAMENTUETAN SARTZEKO ARAUTEGI espezifikoak arautuko ditu apartamentu hauetan sartzeko prozedurak, baldintza bereziak eta balorazioa. Batez ere 65 urtetik gorako pertsona hauentzat izango da zerbitzua: mendekotasun egoera arina dutenak (I maila), mendekotasun arriskuan daudenak edo salbuespenez, autonomoak. Apartamentuetan sartzeko salbuespenezko irizpideak hartzea udalari dagozkio. Balorazio-eskalari dagokionez, zehazteko ea pertsona bat autonomoa den edo, mendekotasuna baldin badu, mendekotasunaren maila zenbatekoa den, Gipuzkoako Foru Aldundiaren indarreko balorazio-eskalak erabiliko dira, edo etorkizunean argitaratzen direnak. Bizikidetza-unitatea ez zatitzeko, eskatzailearekin batera, zerbitzuaren hartzaileak izan daitezke bere ezkontidea edo izatezko bikotea ere (ohiko bizikidetza harremana badute) eta, salbuespen kasuetan, haren ardurapean dauden seme-alabak zerbitzuaren arautegian jasotakoaren arabera Edonola ere, pertsonek ez dituzte beharko intentsitate handiagoko baliabideak, eta gai izango dira eguneroko bizimoduko jarduerak euren kabuz egiteko, era independentean edo intentsitate txikiko laguntzarekin. Erreferentziazko profesionalaren balorazioarekin bat etorriz, bertara sartzen diren pertsonek: a) Bizileku bat behar dute, iraupen luzekoa edo iraunkorra (salbuespenez, aldi batekoa), ez dutelako bizileku egokirik (irisgarritasun eta/edo bizigarritasuneko baldintza egokietan) eta/edo bizikidetza edo bakardade arazoak dituztelako (isolamendu soziala). b) Intentsitate txikiko laguntza behar dute harremanetarako trebetasunak mantendu eta garatzeko eta horien bidez komunitatean bizitza autonomoa edukitzeko, eta, zenbait kasutan, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko. c) Ez dute behar gizarte zerbitzuetako	NORMATIVA MUNICIPAL ESPECÍFICA PARA LOS APARTAMENTOS TUTELADOS DE PERSONAS MAYORES DEL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ. Principalmente está dirigido a personas mayores de 65 años, en situación de dependencia leve (Grado I), riesgo de dependencia o, excepcionalmente, autónomos. La adopción de criterios excepcionales de acceso a los apartamentos corresponde al Ayuntamiento. En cuanto a la escala de valoración para determinar si la persona es autónoma, o nivel de dependencia en su caso, se regirá por la escala de valoración vigente en la Diputación Foral de Guipúzcoa o por posteriores normativas que se publiquen. Para mantener la unidad convivencial pueden acceder al servicio, junto a la persona solicitante: quien sea su cónyuge o pareja de hecho, con relación de convivencia habitual y, excepcionalmente, los hijos e hijas que se encuentren a su cargo en los términos recogidos en el reglamento del servicio. En cualquier caso, las personas no precisarán de recursos de mayor intensidad y serán capaces de hacer por sí mismos las actividades de la vida diaria de forma independiente o con apoyos de baja intensidad. De acuerdo con la valoración de la o del profesional de referencia, las personas que accedan al mismo: a) Requieren de una alternativa de alojamiento, de larga estancia o permanente (o excepcionalmente temporal) por carecer de una alternativa de alojamiento adecuada, en condiciones de accesibilidad y/o habitabilidad, y/o tener problemas de convivencia o soledad (aislamiento social). b) Precisan apoyos de baja intensidad, para mantener o desarrollar habilidades relacionales que posibiliten su vida autónoma en el entorno comunitario, y, en su caso, para realizar actividades de la vida diaria. c) No precisan una asistencia sanitaria especializada y/o permanente fuera del alcance y posibilidades de las dotaciones propias de la red de servicios sociales.

berezko sareko zerbitzuen irismenetik eta aukeretatik kanpo dagoen asistentzia sanitario espezializatua eta/edo iraunkorra.

d) Ez dute portaera nahasmendurik edukiko, ez eta zerbitzuaren funtzionamendu edo bizikidetza arrunta larriki aztoratuko duen edo beretzat, beste erabiltzaileentzat edo profesionalentzat arriskutsuak izan daitezkeen jokabiderik ere.
e) Ez diote ukorik egiten dagokien tratamenduari, baldin eta gaixotasunen bat badute.

2.3 PLAZA KOPURUA ETA ORDUTEGIA

Maria Etxetxiki eraikinak adinekoei zuzendutako babespeko 39 apartamentu ditu; guztira 46 plaza, honela banatuta:

- Banakako 32 apartamentu (32 plaza).

- 7 apartamentu bikoitz (14 plaza).

Apartamentu indibidual bakoitzak honakoak izango ditu: 19,35 m²-ko egongela-sukalde-jangela; 9,50 m²-ko logela eta 5,80 m²-ko bainugela. 34,65 m²-ko azalera erabilgarria eta 4,20 m²-ko terraza.

Apartamentu bikoitz bakoitzak honakoak izango ditu: 27,40 m2-ko egongela-sukalde-jangela; 15,15 m2-ko logela eta 6,20 m2-ko bainugela. 48,75-ko azalera erabilgarria eta 3,70 m2-ko terraza.

Eraikinean apartamentu indibidual egokituak eta apartamentu bikoitz egokituak daude. Lehen eta bigarren solairuan erabilera anitzeko egongela komunak daude.

Eraikinaren atzeko aldean lursail txiki bat dago, egoiliar guztiek baratze komunal modura erabil dezaketena.

Zerbitzua urteko egun guztietan eskaintzen da, etenik gabe. Langileak bertan egongo dira gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko orduan, eta gaueko ordutegian ere bai, agiri honetako VII atalean jasotzen den bezala.

3.- GIZARTE LARRIALDIKO EGOEREI

d) No padecen trastornos de conducta ni presentan comportamientos que puedan perturbar gravemente el funcionamiento del servicio o la normal convivencia en el mismo, o que supongan riesgo para la propia persona, para otras personas usuarias o para las y los profesionales.
e) No rechazan el tratamiento que corresponda, en caso de padecer una enfermedad.

2.3 NÚMEROS DE PLAZAS Y HORARIO

El edificio de María Etxetxiki dispone de 39 apartamentos tutelados, con un total de 46 plazas, distribuidas de la siguiente manera:

- 32 apartamentos individuales, con 32 plazas.
- 7 apartamentos dobles, con 14 plazas.

Cada apartamento individual dispone de salón-cocina-comedor de 19,35 m². Dormitorio de 9,50 m² y un baño de 5,80 m². Una superficie útil de 34,65 m² y una terraza de 4,20 m².

Cada apartamento doble dispone de salón-cocina-comedor de 27,40 m², un dormitorio de 15,15 m² y un baño de 6,20 m². Una superficie útil de 48,75 m² y una terraza de 3,70 m².

El edificio cuenta con apartamentos individuales y dobles adaptados. Y en la primera y segunda planta hay salas comunes para actividades polivalentes.

En la parte trasera del edificio existe un pequeño terreno que puede ser utilizado como huerta comunal para uso de todos los residentes alojados.

El servicio se ofrece todos los días del año de forma ininterrumpida, debiendo garantizarse presencia de personal en los horarios de desayuno, comida y cena, así como en horario nocturno, tal y como se recoge en el apartado VII de estos pliegos.

3.- SERVICIOS DE ALOJAMIENTO PARA SITUACIONES DE EMERGENCIA SOCIAL

3.1 DEFINICIÓN Y OBJETIVOS DEL SERVICIO

AURRE EGITEKO BIZILEKU ZERBITZUAK **3.1 DEFINIZIOA ETA ZERBITZUAREN HELBURUAK** Zerbitzu honek bizilekua eskaintzen die iraupen laburreko egonaldia behar duten pertsonei eta bizikidetza-unitateei, gizarte premiako edo gizarte larrialdiko egoera baten ondorioz etxebizitzarik gabe geratu direnean. Aldi baterako zerbitzua da, eta egonaldia gehienez 4 hilabete arte luzatu daiteke. Salbuespen kasuetan, badago aukera iraupen bereko beste luzapen bat egiteko. Apartamentu hauek ez daukate langileen presentziarik bertan, ezta zerbitzuan berariaz adskribatutako langilerik ere. Beharrezkoa izanez gero, egokiak diren kanpoko laguntzak jarriko dira, bai eta Udaleko Gizarte Zerbitzuen laguntza ere. Larrialdiko apartamentuen helburu espezifikoak: a) Gizarte larrialdiko egoerek eragindako etxebizitza gabeziaren ondoriozko krisi egoerak gainditzen laguntzea erabiltzaileei. b) Etxebizitza gabeziak eragindako egoera kritiko jakin batean dauden pertsonei / bizikidetza-unitateei aldi baterako bizilekua ematea. c) Pertsona hauei laguntza egokia ematea, ingurune seguru batean, bere egoera pertsonal eta familiarrean beharrezkoak diren aldaketak egiteko. Udal araudi espezifikoak arautuko ditu apartamentu hauetan sartzeko prozedurak, baldintza bereziak eta balorazio-irizpideak. **3.2 ZERBITZUAREN HARTZAILEAK** 18 urte edo gehiagoko pertsonak eta, egotekotan, eskatzailearekin batera bizi eta haren kargura, tutoretzapean edo zaintzapean dauden pertsonak (adindunak edo adingabeak), baldin eta gizarte premia edo gizarte larrialdi egoeran badaude, baliabidean sartzeko araudi		Servicio que ofrece alojamiento a personas y unidades de convivencia que requieren una estancia de corta duración para poder hacer frente a la carencia de alojamiento derivada de una situación de emergencia o urgencia social. Es de carácter temporal y la estancia puede prolongarse un máximo de 4 meses, excepcionalmente con posibilidad de una prórroga de la misma duración. Son apartamentos que no cuentan con personal presente en el piso, ni con personal específicamente adscrito al mismo, articulándose, en caso necesario, los apoyos externos que resulten idóneos, así como el apoyo del Servicio Social municipal. Objetivos específicos de los apartamentos de emergencia: a) Ayudar a las personas usuarias a superar situaciones de crisis determinadas por la carencia de alojamiento derivada de situaciones de urgencia social. b) Facilitar un alojamiento temporal a personas / unidades convivenciales que se encuentren en una situación crítica determinada por la carencia de alojamiento. c) Ofrecer a estas personas la posibilidad de disponer, en un entorno seguro, de los apoyos adecuados para poder abordar los cambios que se estimen necesarios en su situación personal y familiar. El procedimiento de acceso, requisitos específicos y criterios de valoración para el acceso a estos alojamientos se regirán por la normativa municipal específica de los mismos. **3.2 POBLACIÓN DESTINATARIA** Persona solicitante con 18 años o más, y en su caso, personas a su cargo, bajo su tutela o guarda que convivan habitualmente con ella, sean mayores o menores de edad, que estén en una situación de urgencia o emergencia social, en base a los criterios de valoración y requisitos establecidos en la normativa de acceso específica del recurso.

espezifikoan jarritako balorazio irizpide eta baldintzetan oinarrituta. Edonola ere, etxebizitzan sartzen diren pertsonek: a) Intentsitate txikiko laguntza behar dute, alegia, langileen etengabeko presentziarik gabe eman daitekeen bizileku-zerbitzua da. b) Ez dute behar gizarte zerbitzuen berezko sareko zerbitzuen irismenetik eta aukeretatik kanpo dagoen asistentzia sanitario espezializatua eta/edo iraunkorra. c) Ez dute portaera nahasmendurik edukiko, ez eta zerbitzuaren funtzionamendu edo bizikidetza arrunta larriki aztoratuko duen edo beretzat, beste erabiltzaileentzat edo profesionalentzat arriskutsuak izan daitezkeen jokabiderik ere. d) Ez diote ukorik egiten dagokien tratamenduari, baldin eta gaixotasunen bat badute. **3.3 PLAZA KOPURUA** 4 apartamentu egongo dira. Udalak erabaki dezake kontratuaren iraupenean zehar larrialdietara zuzendutako apartamentu kopurua murriztea, adinekoen apartamentuak edo desgaituen plazak gehitzeko. **4. DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO LAGUNTZADUN APARTAMENTUAK** **4.1. DEFINIZIOA ETA HELBURUAK** DEFINIZIOA Bizikidetza zerbitzuak dira; ohiko bizitokia edo bizitoki iraunkorra —eta, hala badagokio, aldi batekoa— eskaintzen zaie desgaitasuna duten pertsonei eta mendekotasun egoeran daudenei, baldin ezin badituzte euren premiak bere etxean edo familiaren etxean behar bezala bete. Bi apartamentu dira (4 plaza), mendekotasun maila arina duten pertsonentzat. Bertan, arreta eta ikuskapena eskaintzen zaie eguneroko bizitzako zenbait jardueratan.		En cualquier caso, las personas que accedan al mismo deben: a) Requerir un apoyo de baja intensidad que pueda prestarse en un servicio de alojamiento sin presencia permanente de personal. b) No precisar una asistencia sanitaria especializada y/o permanente fuera del alcance y posibilidades de las dotaciones propias de la red de servicios sociales. c) No padecer trastornos de conducta y/o presentar comportamiento que puedan perturbar gravemente el funcionamiento del servicio o la normal convivencia en el mismo o que supongan riesgo para la propia persona, para otras personas usuarias o para las y los profesionales que pudieran intervenir. d) No rechazar el tratamiento que corresponda, en caso de padecer una enfermedad. **3.3 NÚMERO DE PLAZAS** Se dispondrá de 4 apartamentos. El Ayuntamiento podrá acordar durante la duración del contrato la reducción del número de apartamentos destinados a urgencias para aumentar los apartamentos de personas mayores o plazas para personas con discapacidad. **4. APARTAMENTOS CON APOYOS PARA PERSONAS CON DISCAPACIDAD** **4.1 DEFINICIÓN Y OBJETIVOS** DEFINICIÓN Son servicios de convivencia destinados a servir de vivienda habitual o permanente —y en su caso temporal— a personas con discapacidad y en situación de dependencia, que no pueden satisfacer adecuadamente sus necesidades en su domicilio personal o familiar. Se trata de dos apartamentos (4 plazas) y está dirigido a personas con dependencia leve. Se ofrece atención y supervisión en las actividades de la vida diaria que precisen de apoyo. **Vivienda con apoyos** Los apartamentos tutelados se incluyen en la modalidad de vivienda con apoyos, y están

Laguntzadun etxebizitza Laguntzadun etxebizitzen modalitatean sartzen dira babespeko apartamentuak, eta etxebizitza bat eskaintzen die mendekotasun maila arina duten pertsonei. Ikuskapen eta laguntza maila aldizkakoa eta mugatua eskaintzen da, indibidualizatua eta pertsonen behar aldakorren araberakoa. Horretarako, profesional talde baten laguntza izango dute. Profesionalok profil egokiak izango dituzte ongizate fisiko, psikologiko eta sozialerako arreta emateko. HELBURUAK - Erabiltzaileen ongizate fisiko eta emozionala hobetzea. - Bere autonomia pertsonala mantendu eta garatzea. - Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko behar duten babesa eta laguntza bermatzea. - Erabiltzailearen garapen pertsonala, gaitasunak, ahalmenak, trebetasunak eta esperientziak indartzea, bizitza autonomoagoa izateko. - Aukera ematea bere bizi-proiektuarekin eta eguneroko bizimoduarekin lotutako aukerak egiteko eta erabakiak hartzeko. - Solidaritatean eta elkarrekiko laguntzan oinarritutako ongizatea lortzea. - Aukera ematea ingurune komunitarioan integratzeko eta parte hartzeko eta zerbitzu komunitarioak erabiltzeko. - Laguntzazko sare familiar eta sozialak mantendu eta indartzea. - Segurtasun sentimendua bultzatzea. - Helburu espezifiko hauen betetzean genero ikuspespegia kontuan izango da. **4.2 ZERBITZUAREN HARTZAILEAK** Pertsona erabiltzaileen baldintzak, balorazioa eta plazak lortzeko prozedura arau hauetan xedatutakoarekin bat etorrita egingo da: 7/2015 foru dekretua, martxoaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak egoitza zerbitzuetan eta eguneko zentroetan sartzeko araubidea arautzen duena, edo hori garatuko duten araudiak. Xedapen hauetan definitzen dira erabiltzaileek		destinados a servir de alternativa al domicilio a las personas que presentan un nivel de dependencia leve. Garantizan un nivel de supervisión y apoyo intermitente-limitado, de carácter individualizado, y adaptados a las necesidades cambiantes de las personas, y para ello cuentan con el apoyo de un equipo de profesionales con los perfiles idóneos para prestar atención orientada al bienestar físico, psicológico y social. OBJETIVOS - Mejorar el bienestar físico y emocional de las personas usuarias. - Mantener y desarrollar su autonomía personal. - Garantizar el apoyo y asistencia personal necesaria para realizar las actividades de la vida diaria. - Potenciar su desarrollo personal, capacidades, competencias, habilidades y experiencias orientadas hacia una vida más autónoma. - Ofrecerles oportunidades para elegir y tomar decisiones relacionadas con su proyecto de vida personal, así como con su vida cotidiana. - Procurar satisfacción con la convivencia, basada en la solidaridad y la ayuda mutua. - Ofrecerles oportunidades para integrarse y participar en el entorno comunitario y para utilizar los servicios comunitarios. - Promover el mantenimiento y el refuerzo de sus redes familiares y sociales de apoyo. - Favorecer su sentimiento de seguridad. - Se tendrá en cuenta la perspectiva de género en el cumplimiento de estos objetivos. **4.2 POBLACIÓN DESTINATARIA** Los requisitos de las personas usuarias, la valoración y el procedimiento de acceso a las plazas se realizará conforme a lo establecido en el Decreto Foral 7/2015, de 24 de marzo, por el que se regula el régimen de acceso a los servicios residenciales y de centro de día para personas en situación de dependencia en Guipúzcoa, o normativas que se desarrollen a tal efecto.

bete beharko dituzten baldintza orokor eta bereziak: 7/2015 foru dekretuan (martxoaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak egoitza zerbitzuetan eta eguneko zentroetan sartzeko araubidea arautzen duena) edo hura ordezkatuko duten araudietan. Baldintza bereziak: • 18 urte edo gehiago eta 64 urte edo gutxiago izatea eskaera aurkezten den egunean. • Mendekotasun egoeran dagoen pertsona modura baloratuta egotea (orientazio modura 1 mailakoa). • % 33 edo gehiagoko desgaitasun maila aitortua izatea. • Baliabidea egokia dela adierazten duen orientazio-txostena edukitzea (desgaitasuna duten pertsonentzako orientazioaren arloan Gipuzkoako Foru Aldundian eskumena daukan lantalde teknikoak emandakoa). **a) Profil orokorra:** Hartzaileak indibidualak edo bizikidetza-unitateak izan daitezke. Azken horien kasuan, nahikoa da kideetako batek sartzeko baldintzak betetzea eta jarraian zehazten den profila edukitzea. Erabiltzaileen profila definitzeko, beharrezkoa da pertsona horren oinarrizko beharren multzoan oinarritutako azterketa bat egitea. Hori egiteko, mendekotasuna baloratzeko indarrean dagoen eskema jarraituko da (BVD), eta horri beste gogoeta batzuk erantsiko zaizkio (portaera, egoera sozio-familiarra eta etxebizitza). Desgaitasun nagusia: • Intelektuala —arina • Fisikoa Bigarren desgaitasuna: • Intelektuala —arina • Fisikoa • Desgaitasun psikikoa —gaixotasun mentala Arreta maila: aldizkakoa eta mugatua		Los requisitos generales y específicos que deberán reunir las personas usuarias se definen en el Decreto Foral 7/2015, de 24 de marzo, por el que se regula el régimen de acceso a los servicios residenciales y de centro de día para personas en situación de dependencia en Guipúzcoa, o normativas que se desarrollen a tal efecto. Requisitos específicos: • Tener una edad igual o superior a 18 años e igual o inferior a 64 años en la fecha de la presentación de solicitud. • Estar valorada como persona en situación de dependencia (grado 1 como orientación). • Tener reconocido un grado de discapacidad igual o superior al %33. • Disponer de informe de orientación por el que se determine la idoneidad del recurso, emitido por el equipo técnico competente en materia de orientación de las personas con discapacidad de la Diputación Foral de Gipuzkoa. **a) Perfil general:** Las personas destinatarias pueden ser individuos o unidades convivenciales. En estas últimas bastará con que uno de los miembros reúna los requisitos de acceso y cumpla el perfil que se detalla a continuación. Para definir el perfil de las personas usuarias es necesario realizar un análisis basado en el conjunto de necesidades básicas de la persona para lo que se seguirá el esquema marcado para valorar la dependencia según el baremo vigente (BVD), añadiendo al mismo consideraciones de carácter conductual, sociofamiliar y de vivienda. Discapacidad principal • Discapacidad intelectual –leve • Discapacidad física Segunda discapacidad: • Discapacidad intelectual-leve • Discapacidad física • Discapacidad Psíquica – Trastorno mental Nivel de apoyo: Intermitente y limitado

Portaera arazoak: EZ

Zama sanitarioak: arinak

- Adinerako ohikoak direnak edo ongi kontrolatutako gaixotasun kronikoak. Patologia garrantzitsu bat duten pertsonak ere onar daitezke, baldin eta gaitzak eguneroko funtzionamenduan eraginik ez badu eta osasun sistemak bere gain hartzen badu gaixoak behar duen aldizkako tratamendua egiteko konpromisoa.

Egoera soziala

- Bakardadearekin edo etxebizitza arloko gabeziekin lotutako beharrak ere baloratuko dira.
- Bizikidetza-unitateen kasuan, aintzat izango dira unitateko beste kideak laguntza emateko eskaintzen dituen aukerak ere, zerbitzuak estali ezin dituen arreta-beharrak konpentsatu ahal izateko.

b) Profil funtzionala

Pertsonek zein arreta-behar dituzten zehaztu ahal izateko, balorazio bat egiten da, mendekotasuna baloratzeko baremoan jarritako eskemaren bitartez (orientazio modura 1 mailakoa).

Ikuspegi **funtzionalari** dagokionez, jarraian aipatzen diren arloak hartu behar dira kontuan:

Jatea eta edatea. Hau izango da erabiltzaileak gehienez beharko duena: janariaren erosketa eta prestaketa gainbegiratzea, eta zeregin horietan laguntzea. Erabiltzaileek behar adina autonomia izan behar dute janaria eta edaria mahaian jartzeko, mahai-tresnak erabiltzeko eta janaria eta edaria ahoratzeko.

Inolaz ere ezin dira baliabide honen erabiltzaile izan elikatzeko beste pertsona baten beharra duten pertsonak.

Trastorno de conducta: NO

Cargas sanitarias: leves

- Con cargas sanitarias bajas (normales para su edad o enfermedades crónicas bien controladas). Pueden ser aptas las personas con una patología importante que no afecte a su funcionamiento diario, AVDs, siempre que el sistema sanitario asuma el compromiso de realizar el tratamiento periódico necesario.

Situación social

- Se valorarán también las necesidades relacionadas con la soledad o las carencias en materia de vivienda.
- En el caso de las unidades convivenciales, se valorará las posibilidades de apoyo que ofrezca el otro miembro de la unidad, de manera que pueda compensar las necesidades de atención que no puedan ser cubiertas en el servicio.

b) Perfil funcional

Con el objeto de especificar las necesidades de atención de las personas atendidas se realiza una valoración mediante el esquema establecido por el baremo de valoración de la dependencia (BVD) (Orientativamente grado 1).
Desde el punto de vista **funcional,** las necesidades a cubrir quedarán enmarcadas en las siguientes áreas:

Comer y beber. La necesidad máxima vendrá definida en la supervisión y apoyo para la compra y elaboración de las comidas. Las personas atendidas tendrán un nivel de autonomía suficiente como para poder servirse la comida y bebida, utilizar los cubiertos y llevar los alimentos y bebida a la boca.

En ningún caso serán personas usuarias de este recurso quienes precisen alimentación con ayuda de tercera persona.

Gernua eta gorotza kontrolatzea. Hau izango da erabiltzaileak gehienez beharko duena: xurgatzailearen erabilera gainbegiratzea, eta horretan laguntzea. Egoiliarrek behar adina autonomia izan behar dute komunera joateko.		**Controlar la micción/defecación**. La necesidad máxima vendrá definida en la supervisión y apoyo para el manejo del absorbente. Las personas atendidas tendrán un nivel de autonomía suficiente como para poder acudir al WC.
Inolaz ere ezin dira baliabide honen erabiltzaile izan inkontinentzia duten eta komuna erabiltzeko laguntza handia behar duten pertsonak.		En ningún caso serán personas usuarias de este recurso aquellas personas incontinentes que necesiten máxima ayuda para utilizar el WC.
Gorputza garbitzea eta beste zainketa batzuk. Hau izango da erabiltzaileak gehienez beharko duena: higiene-ohitura osasuntsuak ez edukitzeak eragindakoak eta horiek egiteko laguntza behar izatea. Unean uneko laguntza behar duten pertsonentzat izango da esku-hartzea. Norbere burua zaintzeko ohiturak irakatsiko zaizkie, ohitu arte.		**Lavarse y otros cuidados corporales**. La necesidad máxima vendrá definida por la ausencia de hábitos de higiene saludables, así como por la necesidad de apoyo en la realización de los mismos. La intervención por tanto irá destinada a asistir a aquellas personas que requieran de ayuda puntual, así como a instruirles y familiarizarles con los hábitos de autocuidado (educación sanitaria).
Inolaz ere ezin dira baliabide honen erabiltzaile izan euren higienea zaintzeko eta mantentzeko orduan laguntzen ez duten eta sistematikoki kontra egiten duten pertsonak.		En ningún caso serán personas usuarias de este recurso aquellas personas que sistemáticamente se opongan y no colaboren con el cuidado y mantenimiento de su propia higiene.
Janztea. Hau izango da erabiltzaileak gehienez beharko duena: arropa eta oinetakoak janzteko eta eranzteko ekintza eta zeregin koordinatuak gainbegiratzea, eta horretan laguntzea. Ekintza horiek, gainera, hurrenkera egokian egin behar dituzte, eta eguraldia eta baldintza sozialak kontuan hartuta.		**Vestirse**. La necesidad máxima vendrá definida en la supervisión y apoyo en las acciones y tareas coordinadas precisas para ponerse y quitarse ropa y el calzado en el orden correcto y de acuerdo con las condiciones climáticas y sociales.
Inolaz ere ezin dira baliabide honen erabiltzaile izan zeregin horiek egiteko laguntza handia behar duten pertsonak.		En ningún caso serán personas usuarias de este recurso las personas que necesiten máxima ayuda para realizar estas tareas.
Osasuna zaindu eta botikak hartzea. Hau izango da erabiltzaileak gehienez beharko duena: osasuna zaintzen duela, botikak behar bezala hartzen dituela eta gaixotasunak prebenitu eta arriskuak saihesten dituela gainbegiratzea, eta horretan laguntzea.		**Mantenimiento de la salud y administración de medicación**. La necesidad máxima vendrá definida en la supervisión y apoyo para cuidar de la propia salud, para administrar correctamente la medicación, así como para prevenir enfermedades y evitar riesgos.
Inolaz ere ezin dira baliabide honen erabiltzaile izan intentsitate handiagoko		En ningún caso serán personas usuarias de este recurso las personas que presenten estado de salud deteriorado que requiera unos cuidados y/o tratamientos de mayor intensidad.

zaintza eta/edo tratamenduak behar dituzten pertsonak **Gorputza mugitzea eta lekualdatzea.** Hau izango da erabiltzaileak gehienez beharko duena: unean uneko laguntza ematea kanpoaldean. Erabiltzaileek autonomia izan behar dute zentroan eta kanpoaldean bere kasa mugitzeko, inolako laguntzarik gabe edo laguntza tekniko jakin batzuekin (bastoia, makuluak, gurpil-aulkia...). Inolaz ere ezin dira baliabide honen erabiltzaile izan gorputza mugitzeko eta lekualdatzeko laguntza pertsonal etengabea behar duten pertsonak. **Etxeko zereginak.** Hau izango da erabiltzaileak gehienez beharko duena: etxeko lanak egiteko erabateko laguntza. Hor sartuta daude janaria prestatzea, erosketak egitea, etxea garbitzea eta arropa garbitzea, hala eskatzen edo behar dutenentzat. Dena den, arlo honetan autonomia maila handia duten pertsonak ez dira baliabide horietatik kanpo geratuko. Zeregin horiek egiteko gai ez izatea ez da izango baliabide honetatik kanpo geratzeko arrazoia. **Erabakiak hartzea**. Hau izango da erabiltzaileak gehienez beharko duena: bere burua zaintzeko jardueretan, mugikortasunean, etxeko zereginetan, pertsonen arteko harremanetan, dirua erabili eta kudeatzean eta zerbitzuak erabiltzean erabaki egokiak hartzen dituela gainbegiratzea, eta horretan laguntzea. Inolaz ere ezin dira baliabide honen erabiltzaile izan hondamen kognitibo moderatu edo larria duten pertsonak. Mendekotasuna baloratzeko baremoan jasotako adierazle horiez gainera, aintzat izan behar dira jarraian aipatzen diren puntuak: **Nork bere burua zaintzeko gaitasuna**. Hau izango da erabiltzaileak gehienez beharko		**Transferencias corporales y desplazamientos**. La necesidad máxima vendrá definida en apoyos puntuales en el exterior. Las personas atendidas deberán poder moverse de forma autónoma dentro del recurso y en el exterior, sin apoyos o con determinadas ayudas técnicas (bastón, muletas, silla ruedas…). En ningún caso serán personas usuarias de este recurso las personas que necesiten apoyos personales continuos tanto en transferencias corporales, como en desplazamientos. **Tareas domésticas**. La necesidad máxima vendrá definida en el apoyo total para la realización de estas tareas que incluyen preparar comidas, hacer la compra, limpiar la vivienda y lavar la ropa, para aquellos que así lo requieran o soliciten. No obstante, no quedarán excluidos de estos recursos aquellas personas que presenten un alto grado de autonomía en esta área. La imposibilidad de realización de estas tareas no será motivo de exclusión de estos recursos. **Tomar decisiones**. La necesidad máxima vendrá determinada en supervisión y asesoramiento en una adecuada toma de decisiones relativas a las actividades de autocuidado, movilidad, tareas domésticas, interacciones interpersonales, usar y gestionar el dinero y uso de servicios. En ningún caso serán personas usuarias de este recurso las personas que presenten un deterioro cognitivo moderado, grave. Además de estos indicadores recogidos en el baremo BVD habrá que tener en cuenta los siguientes aspectos: **Capacidad de autocuidado**. La necesidad máxima vendrá determinada en la supervisión continua de aquellos residentes que por motivos de diferente índole

